



Joxemiel
Bidador
Gonzalez

Klasiko bitxi, arront klasiko

1970-2010

BIDeGILEAK

Egilea:

Roldán Jimeno Aranguren



JOXEMIEL BIDADOR GONZALEZ

(1970-2010)

Azalpen biografiko eta profesional laburra

Hizkuntzalari, historialari eta folklorista, Joxemiel Bidador Gonzalez 2010eko martxoaren 2an hil zen, garun-isuri baten ondorioz. Oso gazte joan zitzaigun, 39 urte zituenean. Iruñean jaio zen, 1970eko martxoaren 28an. Jose Mari Bidador Oses zuen aita, eta ama, berriz, Enkarna Gonzalez Jimenez, Joxemielen guraso ez ezik, Martarena eta Anarena ere bai. Haurtzaro eta nerabezeroaren lehen zatia kaputxinoek Iruñeko Errotxapea auzoan, Altsasun eta Tuteran dituzten ikastetxeetan igaro zituen. Erriberako hiriburuan hasi zen euskara ikasten, eskola orduz kanpo, Benjamin Tuterakoaren Institutuan. BBBko 2. maila amaitu eta

kaputxinoen trebakuntza uztea erabaki zuen. Orduan, Iruñera itzuli zen. Eskolapioen kolejoan jarraitu zituen ikasketak, eta, ondoko urteetan, euskara sakondu zuen IPESen, AEKn eta Lazkaoko Maizpide barnetegian.

Hizkuntzalaritza oinarri sendoa zuen Gasteizera joatea erabaki zuenean, Euskal Herriko Unibertsitatera, Euskal Filologia ikastera. 1993an lizentziatu zen. Fakultate hartan bertan egin zuen hirugarren zikloa, baita doktore tesia idatzi ere, dantzak euskal literaturan duen lekuaz. Ondoren, Bidadorrek gustukoaren zituen gaiak sakondu zituen, unibertsitateko diziplinari berezko zaizkion loturarik gabe



Joxemiel Bidador (behean eta eskuinean)
Altsasuko kaputxinokideekin Urbasan

eta, ikerketak ikuspegi ortodoxoago bate-
tik egitera behartuko zuten bide meharre-
tatik urrun.

Haren ibilbide profesionala euskararen
irakaskuntzari loturik izan zen beti. Hasta-
penetan, AEK-ko euskaltegietako irakasle
izan zen, hala Iruñean nola Tuteran. Fun-
tzionario ikasketen ostean, Nafarroako
Gobernuaren Administrazio Publikoaren
Institutuaren euskaltegian egin zuen lan
lehenengo, 2000-2001 eta 2003-2004 ikas-
turteetan eta Bigarren Hezkuntzako zen-
bait institututan ondoren, zehazki Zizur
Nagusikoan (2004-2007), Iruñeko Biur-
danakoan (2007-2009) eta Tuterakoan
(2009-2010 ikasturtea hasi zuen). Lanean
ez zen hizkuntza irakastera mugatzen;
euskararen literaturaren eta historiaren
bidez balioesten baitzuen.

2



Migel haurtzaroan

Ezagutzen transmisioan erakutsi zuen di-
namikotasuna ez zen batere ohikoa Biga-
rren Hezkuntzako irakaskuntzan. Aipaga-
rria da, adibidez, 2006an Zizurreko insti-
tutuan Juan Beriain idazlearen oroimenez
antolatu zuen dibulgaziozko jardunaldia.
Horren bidez, euskarak ibarrean izan
zuen garrantzi historikoa, baita bertako



1980ko hamarkadan Joxemielek euskara ikasteari
ekin zion buru-belarri, ondoren euskal filologia
karrera egiteraino



Baternaingo Kontzejuko lehendakaria hautatu zuten Bidador 2007an eta 2008ko festetako txupinazoa jaurti zuen

autorerik nabarmenenarena ere, erakutsi nahi izan zien Iltzarbe ibarreko ikasleei eta Utergako herritarrei. Zizurreko ikasle ohi batek, Maialen Itxasok, Joxemielen irakaspenaren berezitasunak nabarmentzen zituen testua irakurri zuen Artikan eta ondoren Bidadorren omenezko blogean argitaratu zuen: «...zu, ez zinen azterketa gainditzeko helburuarekin irakasten zuen horietakoa, ezberdina zinen. Zure nahia, ikasleok Euskara hizkuntza gisa maitatzea zen, eta bai, lortu zenuen. Hori gutxi balitz, pertsona bezala ere asko erakutsi zenigun. Gure irakaslea izateaz gain, gure laguna bilakatu zinen, eta hori, oso gutxik lortzen dute... Aiiis, zu bezalako irakasle gehiago egongo balira...».

Hogei urte zituenetik lagun banaezina izan zuen Idoia Sara. Idoiak Nafarroako Corteseko eta Tuterako ikastoletan lan egiten zuenez, hainbat urtetan bikotea Iruña eta Tuteran artean bizi izan zen. 2002an, Ilazki alaba jaiotzearekin batera, bikotea Iruñera aldatu zen bizitzera eta Baternainera ondoren. Herri horretan sortu zen 2007an bigarren alaba, Maddi. 2007ko ekainaz gero, Zizur Zendeako herri horretako kontzejuko presidente zen.

HERRI DANTZAREN HISTORIALARI

Joxemiel Bidadorren biografia intelektualak bere dibertimendu bat, dantza, du abiapuntu; ikerketa lerro nagusi ere bilakatu zuen. Iruñeko Udalaren dantza-taldean trebatu zen dantzari, eta lau hamarkadako historia zuen taldearen desagerpena bizitzea ere gertatu zitzaion, Udalak dantzariari ekitaldi ofizialetan dantzatzen zituzten koreografiatan ikurri-eramatea galarazi zienean. Ondorioz, *Duguna* (1988) sortu zen, eta bertan sartu zen dinamismo handiko gazte iruindarra. Noizbehinka, *Danok bat*, *Baztango Dan-*



1991n *Duguna* dantza taldearekin Okayamako (Japonia) nazioarteko jaialdian

tzariak eta *Larratz* taldeetan ere aritu zen. Bestalde, *San Lorentzoko Dantzanteen* (1997) sortzaileetako bat izan zen, eta talde horretan jarraitu zuen dantzan hil arte.

Bere sortze-lan artistikoa Tuterako Argia ikastolako dantza taldearen esku ere jarri zuen. Haientzat lau makila-dantza (*Argitxoren dantza*) idatzi zituen, 1998 eta 2001 artean dantzatu zituztenak. Erriberrako hiriburuko Erraldoien Konpartsako kide ere bazen. 2010eko uztailaren 28an, herriko jaietan, «Joxemiel Bidador» erraldoien balsa estreinatu zuten. Javier Perez de Obanosek konposatu zuen eta konpartsako kideek beraiek egin zuten koreografia. Hogeita hiru urte zituenean, euskal dantzaren gaineko lehen zerrenda bibliografiko sistematikoa argitaratu zuen (1993), eta hiru urte ondoren, arte koreografikoaren semiotikaz teorizatu zuen.

Euskal herri-dantzari buruzko XVI. eta XX. mendeen arteko literaturako, elizako

eta legegintzako lekukotasunak landu zituen doktoretza tesian. Azaldu dugunez, Bidador Euskal Filologian lizentziatu zen 1993an. 1993-94 ikasturtean hasi zituen doktoretza ikasketak. Bere hiru grinak, euskara, euskal literatura eta dantza, bildu zituen ikerketan, herri kulturaren elementu komunak elkartuta, Peter Burke eta beste zenbait autoreren kontzeptzio historiko-antropologikoaren arabera. Bost urtean bukatu zuen. Azkenean, zuzendari bat izan zuen formalki, baina lanaren kontzeptzioa, egitura eta edukiak Bidadorren egintza besterik ez ziren izan. Emaizta ekarpen gailena izan zen, eta arlo horretan aldaketa bat markatu zuen.

Gordailu-aldian, ordea, testuak beto harri garria jaso zuen eta horrek galarazi egin zuen ibilbide bikaineko gaztea unibertsitatera sartzea. Tesiaren zuzendariak ez zuen ezer egin egoera konpontzeko. Bidador ez zen ikasle anonimo eta gatzgabea. Ikerketaren zenbait atalen berri eman zuen *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian argitaratu zituen lau artikulutan, 1993an, 1996an, 1997an eta 1998an. Artikuluok ezinbesteko erreferentzia bihurtu zuten



Joxemiel Bidador *San Lorentzoko dantzantea*



Bidador dantzaria ez ezik *Duguna* fanfarreko kidea ere izan zen



Bidador beti jostari, aske... 1992an *Duguna* dantza taldearekin Kirkleatham Inter Tie nazioarteko jaialdian

Bidador euskal dantza tradizionalaren historialarien artean. Dena den, horren guztiaren gainera, lankideek asko estimatzen zuten Bidador. Ezagutza handia bazuen ere, Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia Fakultatean jarri zizkioten oztupoek galarazi egin zuten Bidadorren irakaspena unibertsitate munduraino hel zedin.

Hala ere, gure protagonistak aurrera begiratu eta lanean jarraitu zuen. Ikerlana baztertu egin zuen, garai hobeen zain. Urte batzuen ondoren, testua berraztertu zuen eta Bilboko Udalaren Migel Unamuno Sariari VI. ediziora aurkeztu zuen. Merezi-menduz irabazi zuen, Xabier Kintanak, Maria Jose Olaziregik, Pello Salaburuk, Jon Sanchez Ibarluzeak eta Begoña Mo-

ranek osatutako epaimahaiak ebatzi zuten (2005eko martxoaren 22a). Sariak eta ondoko argitalpenak pozez bete zuten. Erabateko luditzea izan zitzaizkion. *Dantzaren erreforma Euskal Herrian* (Bilboko Udala, 2005) izeneko lanak, euskal dantzaren eboluzioa aztertzen zuen, XVI. mendetik XX. menderaino, literaturako, dokumentazio eta legegintzako testigantzen bidez. Obrak hitzik gabe uzten du irakurlea, bildutako datuen xehetasunagatik ez ezik, jorratzen dituen hainbat gaien berritasunagatik ere.

Argitalpen horren ondoren, 2009an adorez berrekin zion dantzaren historiaren gaineko ikerketari, Euskal Dantzarien Biltzarrak argitaratzen duen *Dantzariak* aldizkariaren 55. zenbakiaren koordina-





Bilboko Udaleko 2004ko Miguel de Unamuno saiakera saria jaso zuen, 2005eko maiatzaren 24an, Iñaki Azkuna alkatearen eskutik

tze lanarekin. Zenbaki horretara, gainera, Iruñeko Gorpuzti eguneko dantzei buruzko lana ekarri zuen.

EUSKARAREN HISTORIALARI

Joxemiel Bidador bokaziozko ikertzailea zen. Hogeita bi urte besterik ez zituen, eta ikasketak amaitu gabe zituen, lehen lana argitaratu zuenean. *Noticias y restos del euskara de Val de Ollo* lanean (1992), Iruñerriko mendebaldeko lurralde horren toponimia bildu zuen, Bidadorrek lotura handia sentitzen zuelako leku horrekiko. Zientzia-bataio hark ere ez zituen falta gure egileak bere ibilbidean beti erakutsi zituen zehaztasun metodologikoa eta erudizio jakintsua.



«... zure indarrak gida aileza ene luma sotila! Zure irriak argi aileza ene gogo belztua!»

Euskarari buruzko Bidadorren lehen lanek izaera etnografiko nabarmena ere izan zuten, formula meteorologikoen, magiko-taumaturgikoen eta umeentzako kantine-lan gainera (1994, 1995) erakusten duten bezala.

1999 eta 2001 artean, euskararen historiari egindako bi ekarpen garrantzitsu oso ezberdin argitaratu zituen. *Manual de gramática bascongada, dedicado a la Excma. Diputación de Navarra* (1899) lanaren mendeurrenean, Biktoriano Huiziren (Etxarri-Aranatz, 1860-1938) figura eta idazlanak aztertu zituen. Bestalde,

Nafarroako Artxibo Nagusiko Protokoloen sailean gordetako Ultzamako euskalkian idatzitako 1796. urteko testu interesgarria gogorarazi zuen. Eltzaburuko eskolako obra egin behar zuten harginari eta zurginari ezarritako baldintzak ziren; euskaraz idatzita zeudenez, XVIII. mendearen amaieran Nafarroako gizartearen zati handi bat elebakarra izateari buruzko ondorioak ateratzeko erabili zituen Bidadorrek (2001).

Hala ere, Joxemiel Bidadorrek euskarearen historiari egindako ekarpenak batez ere bi arlo berezitara hedatzen dira, literaturara eta euskarazko kazetaritzara, eta horrek trataera berezia merezi du.



1991n Japonera eginiko bidaian bertako idazkeran saiatu zen



Bidadortarrak aita Barandiaranen itzalpean, Saran, 2009an

NAFARROAKO EUSKAL LITERATURAREN HISTORIALARI

Bidador *Nafarkaria* gehigarriko «Klasiko bitxi arront klasiko» sailaren sortzaile izan zen. Horretan Nafarroako idazle euskaldunen biografiak eta lanak aztertzen zituen astero (1995-2002). Gure idazleak

bizitzara etorrazten zituen bere prosa erabat pertsonalaren bidez. Hala gertatu zen, adibidez, ia inork ezagutzen ez zuen Alexander Tapia Perurena (Iruñea, 1889-1962) Iruñeko gerra aurreko poeta erromantikoarekin. «Klasiko bitxi arront klasiko» saileko artikuluek ondo merezi lukete liburu batean bilduta argitaratzea. Dena den, testu horietako batzuk, aldaketa handiekin, berriz baliatu zituen ondorengo monografietan eta, gaztelaniara modu librean egokiturik, *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* lanean (Pamiela, 2004).

Bidatorrek bazekien bere aurkikuntzen balioa zein zen, eta ez zuen nahi irakurle euskaldunei soilik helaraztea. 2000. urtean, Nafarroako euskal literaturaren historiari buruzko monografia idaztea zuen egiteko proiektuen artean. Baina egitasmoa luzatu egin zen denboran, beste zenbait erronkari ekin ziolako: doktoretza tesiari berari eta Iruñeko zenbait idazleren testuen edizioari. Azken lan hori egitera Iñaki Azkonak, Iruñeko Udalaren Kultura arloko euskara teknikari gogotsuak, bultzatu zuen. 1999an Alexander Tapia Perurenaren poemak argitaratu zituen,



Maria Jesus Tapiak, Alexander Tapia Perurenaren alabak, lore sorta bana eman zien Idoia neska-laguna eta Ilazki alabari Artikako omenaldian

idazle handiaren figurari eta lanei buruzko sarrera batekin.

Zenbait urte ondoren, Tapiaren kazetaritza-lanak ezagutarazi zituen, Bigarren Errepublika garaiko Iruñeko prentsan erabilitako euskarari buruzko liburuan (2003). Poeta horren heriotzaren 50. urteurrenean, Nafar Ateneoak eta Iruñeko Udalak jardunaldi akademiko-literarioak antolatu zituzten elkarlanean. Horietan, Bidator izan zen lan nagusienen egile, Tapia Perurenaren lanaren azterketa estilistikoa, 21 poema argitaragaberen transkripzioa eta *Kattalin umezurtza* antzezlan laburraren erreproduktzioa —Jose Maria Satrustegik beste bertsiorekin argitara-



Maddi alabarekin 2008an

tu zuena—. Era berean, Alexander Tapiaren bibliografia osoa erantsi zion liburuari, generoen arabera ordenaturik (poesia, kazetaritza artikulua eta antzerkia).

Tapiak bezala, Joxe Agerre Santestebanek ere poesia landu zuen, eta euskarako kazetaritzari ere zenbait ekarpen egin zizkion, nahiz eta Tapiak baino neurri apalxeagoan. Bidadorrek haren literatura lanak bildu eta aztertu zituen 2000. urtean Iruñeko Udalak argitaratu zituen bi liburutan eta *Egan* aldizkarian 2002an eta 2004an agertutako bi artikulutan.

Tapiari eta Agerreri buruzko ikerketek frogatu zuten XX. mendeko lehen hamarkadetako Iruñeak ordu arte uste zena baino askoz ere bizitza kultural abe-

ratsagoa eta biziagoa zuela euskaraz. Beste era batera esanda, Fermin Irigaray *Larreko* ez zen salbuespen arraroa. Hain zuzen, *Gerla urte gezur urte* lanaren egileari eskaini zion Bidadorrek Euskal Idazleen Elkarteak Iruñean antolatu zuen 2003ko *Galeusca* literatura jardunaldian irakurri zuen testua, ondoren *Hegats* aldizkarian argitaratuko zena.

Gerra Zibilaren aurreko Nafarroako euskal literaturaren eta euskalaritzaren historia berregitea ez da lan samurra; iturriei buruzko eragozpenak eta hutsuneak dira, eta Bidadorrek horien gainean egin zuen gogoeta «Gerraurreko euskalgintza nafarraren afera dokumentala: erantzun garbi gabeko galdera zenbait» artikuluan, *TKn* kaleratutakoan (2009).

Ikerlan horien osagarri dugu artikulua argitaragabe bat, «Euskara eta euskal literatura: euskaraz argitaraturiko liburuen historia Iruñean». Nafar Ateneoak eta Iruñeko Udalak hiriaren historiaren gaineko hitzaldi zikloa antolatu genuen 2003ko maiatzean. Joxemiel Bidadorrek «Iruñea, euskaldun guztien hiri buruzagia: hiriaren euskal sentimendua» izeneko mahai-inguruan hartu zuen esku, Patxi Larrion



2007an Guardiako ardoaren museoa, ardo dastaketa egin eta gero.
«Ardoak bizi arazten nau bizi arazten nauenez, ez ordea zentzu bakiarrean, zentzu epikureoan, zentzu hedonistan...»

Galdeanorekin eta Mikel Belaskorekin batera. Orduan, udal gobernu-taldeak aktak argitaratzea ukatu zuen arren, etorkizun hurbilean plazaratzea espero dugu argitaletxe pribatu baten bidez.

Iruñeko literatoak aztertu ondoren, Bidador Arakileko korridorekoak aztertzen hasi zen. 2000. urtean, XX. mendeko hiru idazleren, Jesus Florensen, Santiago Ezkerrenaren eta Felipe Arañaren, kazetaritzako testuak eta saiakera-lanak biltzeko mandatua jaso zuen, Arbizuko eta Etxarri Aranatzeko euskalkietan idatzi baitzituzten. Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak eta Bierrik kultur elkar-

teak Sakaneko euskara ikertzeko eta sustatzeko asmoz sinatutako hitzarmenaren ondorioa zen.

Jarraian, ekin diezaiozun haren monografia handia aztertzeari. Horren aurretik euskal literaturaren historiari buruzko bi lan orokor argitaratu zituzten beste bi egilek; Patri Urkizurenak literaturaren historia osoa hartu zuen (2000) eta Jon Kortazar, aldiz, XX. mendean oinarritu zen (2000). Bidadorrek bi liburuon iruzkin bana idatzi zuen *Revista Internacional de los Estudios Vascos* (2000) aldizkarian. Besteren artean, azpimarratu zuen lanek zenbait hutsune zituztela, Nafarroa ikuspuntutzat hartuta. Baina berak beteko zituen bere monografia ospetsuenean.

Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra lanak, euskal literaturaren historiografiak zuen hutsune garrantzitsua osatu zuen. Nafarroako Foru Erkidegoko euskal literaturaren gaineko lehenengo eskuliburua zela nabarmentzen zuen egileak berak liburuaren hasieran, eta bestela irudi lezakeen arren, gai zabala izan zen liburuak *Materiales* izenburua izatearen arrazoia. Izan ere, oraindik aurkitu ez den, baina 1561ean Liza-



Bidador bere *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* liburuarekin (2004)

rran argitaratu zuten, *Elsoko Antsoaren doktrinatik*, euskaraz inprimatu zen lehen liburutik hasi eta 2002. urteko argitalpen interesgarrietarainoko lanak biltzen ditu. Azken horien artean, Pello Lizarralderen *Larrepetit* Euskadi Saria gailentzen da.

Bidadorren liburuaren argitalpena gertakari aipagarria izan zen 2004an. Horretan lagundu zuten urtebete lehenago Angel-Raimundo Fernandez Gonzalez eta Carlos Mata Indurain Nafarroako Unibertsitateko irakasleek kaleratu zuten *Historia de la Literatura de Navarra* lanaren lehen liburukiak. Nafarroako Gobernuak argitaratu zuen lan horrek eta berebiziko polemika piztu zuen euskarazko idazleak liburuko orrietatik kanpo uzteagatik, XX. mendeko Nafarroako litera-



Joxemiel Bidador Ilazki eta Maddi alabekin Hondarribiako udaldian 2009an

tura gaztelaniaz soilik egin zela aditzera ematen baitzuen.

Alabaina, *Materiales* izeneko monografiak euskaraz idatzitako Nafarroako literaturaren aberastasuna ekarri zuen azalera, eta «Existieron, existimos/Baziren, bagara» manifestua eragin zuen. Euskal kulturako 140 idazle eta pertsona ezagunek sinatu zuten. Hitzurrearen egile Aingeru Epaltzaren hitzetan, lanak literatura apala biltzen zuen, ez ugariegia, Europako estandarretatik urruna, baina XX. mendearen azken laurdenaz gero modernitatearekin topo egiten zuena. «Literatura apal» hori doktrinek, sermoiek eta bibliaren itzulpenek osatzen dute, euskal literaturaren historiaren lehen lau mendeetako genero protagonistek. Haien ga-



Aita-alaba Txingudiko badian (2009)

rrantzia ezinbestekoa izan da hizkuntza literarioaren eredia sortzeko eta egitura-tzeko; are gehiago, gure kasuan, hizkuntzari arrotz zitzaizkion oztopoei ez ezik, tradizio ezaren eta euskalkien bereizketaren berezko zailtasunei ere egin behar baitzien aurre.

Obraren zati handi baten euskarazko bertsioa bada, nolabait, *Nafarkariako* «Klasiko bitxi arront klasiko» saileko artikulu mordoxka horretan eta, berrikitan, Susa argitaletxearen *Armiarma* (Literaturaren Zubitegia) webgunean bildutako 150 artikulu ingurutan. Testu horien guztien bildumak Nafarroako euskarazko

literaturaren historiari buruzko monografia entziklopedikoa osatuko luke, eta, aldi berean, egilearen euskara pertsonalarekin berriz bat egiteko aukera paregabea emango liguke. Beraz, biziki espero dugu argitaletxeren batek asmoari gogo onez ekitea.

Materiales argitaratu ondoren, gaiari buruzko zenbait artikulu monografiko landu zituen Bidadorrek. «Arturo Kanpion 150 urte pasa eta gero» zikloan, 2004an idazle euskaroaren jaiotzaren 150. urteurrenean antolatutakoan, «El euskara y la literatura en lengua vasca en la obra de Arturo Campión» hitzaldia eman zuen.




Juankar Lopez-Mugartza, Joxemiel Bidador eta Felipe Juaristi Iruñeko Erraldoien txokoan

2006an *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaratu zuten. Bidadorren iritziz, Campionen figurak eta lanak garrantzi handia izan zuten Nafarroako euskal literaturaren historian; Axularrek XVII. mendeko Lapurdin, Larramendik XVIII. mendeko Gipuzkoan edota Mogelek eta Astarloak XIX. mendeko Bizkaian bezala. Izan ere, Nafarroako lehen euskaltzainak euskararen azterketa sakondu zuen bere lanen bidez, euskararen defentsan lan egin zuten elkarten sorrera sustatu zuen, eta hizkuntza- eta literatura-eredua leheneratzeko eztabaidetan parte hartu zuen.

2005eko maiatzean Nafar Ateneoaren eta Iruñeko Udalaren urteroko euskarazko

jardunaldiak antolatu genituen, On Kixote Mantxakoari eta euskal hizkuntzari eskainiak edizio horretan. Cervantesen lanaren laugarren mendeurren hartan, ehun urte lehenago On Kixoteren hirugarren mendeurrenean Nafarroan antolatu ziren ekitaldien inguruan mintzatu zen Bidador. Ondoko urtean, Juan Karlos Lopez-Mugartzak hartu zuen Ateneoko euskara bozeramailearen ardura, eta Udaleko euskara teknikari Iñaki Azkonarekin batera, beste ziklo bat antolatu zuen, Barojatarrei eskainia, Pio Barojaren heriotzaren 50. urteurrenean (2006). Idazlearen aitak, Serafin Baroja donostiarrak, euskaraz gauzatutako literatura lanaz hitz egin zuen Bidadorrek. Gai horren ingu-



ruan, *Aitaxorengandik jarrera literarioaz* lanarekin jarraitu zuen (2006).

Literaturaren historiari egin zion azken ekarpena Francisco Palacios Lezetaren (1727-1804), Zarauzko misiolari seminarioko sermolari ezagunaren, euskarazko sermoi argitaragabe baten transkribapena izan zen. Frantziskotar hark sermoi ugari idatzi zituen, hala euskaraz nola gaztelaniaz. Bidadorren lana autore haren obrara egin den lehenetariko hurbilketa da. Euskaraz idatzitako sermoietako bat ezagutarazi zuen, etorkizunean beste ikertzaile batzuek ere Oñatiko fraidearen inguruan ikertzen jarrai zezaten (2008).

EUSKARAZKO KAZETARITZAREN HISTORIALARI

Bidadorrek Alexander Tapiaren eta Joxe Agerreren kazetaritza-lanak erreskatzean egin zuen ahaleginaz hitz egin dugu. Ez ziren izan XX. mendearen lehen here-nean Iruñeko egunkarietan euskaraz idaztea erabaki zuten idazle nafar bakarrak. Kazetaritza lanen bidez Nafarroako idazle euskaldunak ezagutaraztea izan zen Bida-

dorrek Nafarroako euskal literaturari egin zion ekarpen handietako bat. Bi liburu idatzi zituen gai horren gainean, Iruñeko Udalak argitaratuak eta erakundearen euskara teknikariak sustatuta. Lehenak, *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1910-1920)*. *Testu antologia (I)* (2001), 1910eko hamarkadan Iruñeko euskarazko kazetaritzaren hamar idazle nagusiak aztertzen zituen. Bi urte ondoren, bigarren liburukia atera zuen, Bigarren Errepublikako Nafarroako hiriburuko kazetaritzaren ingurukoa: *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936)*. *Testu antologia (II)* (2003). Lehen liburukiko bide berean, laurogeita hamar idazle inguru bildu eta aztertu zituen.

2007an gai horretara itzuli zen. Nafarroako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Katedrak euskarazko kazetaritzari buruzko liburua bultzatu zuen, eta Joxemiel Bidadorrek Fermin Irigarairen (*Larreko*) eta Enrike Zubiri Gortariren (*Manezaundi*) ekarriei begiratzea erabaki zuen.

Nabaria denez, Bidadorrek, kazetari izan gabe ere, bikain ezagutzen zuen Nafarroako euskarazko kazetaritzaren historia. Gainera, euskarazko hedabideen historia



Joxemiel mendizalea Orreagan gaindi
Ortzantzurietan

biziaren partaide izan zen, aipatutako *Nafarkaria* aldizkariko «Klasiko bitxi arrontz klasiko» sailaren egile eta Iruñerriko Euskalerrria Irratiaren ohiko kolaboratzaile bezala. *RIEV* aldizkarian «El euskara en los medios de comunicación navarros durante el siglo XX: incidencia de la Ley del Vasculence en la información» argitaratu zuen (2001), gerora euskaraz itzulia *Ele-ria* aldizkarian: «Euskararen Foru Legeak komunikabideetan izan duen eragina» (2003) izenburuaz.

NAFARROAKO ERRIBERAKO EUSKALARITZAREN HISTORIALARI

Iruñean jaio eta Baternainen bizi izan bazen ere, Tuteran Joxemiel Bidadorren erriberatartasuna aldarrikatzen dute, arrazoiz, hantxe bizi izan baitzen urte askoan.

Erriberaren historiak interes bizia piztu zuen Bidadorrengan, eta horretan sakondu zuen Nafarroako hegoaldeko euskalaritzari buruzko ikerketen bidez. Euskal kulturak Erriberako historian izan zuen eginkizuna aldarrikatzen zuen. «Ribera de Navarra y euskara, siglo XX. Historia de un encuentro insoslayable» (2001) lanean hainbat gai aztertu zituen, besteak beste: erriberatarrek gerra aurreko elkarte euskaltzaleetan (Euskara Elkarte, Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordea, Euskararen Adiskideak, Eusko Alderdi Jeltzalea), izan zuten parte hartzea; karmeldar, kaputxino eta jesulagunen ordenetako fraide euskaldunen bitartez euskarak Erriberan izan zuen presentzia; eta gerra ondoko

Tuterako erraldioen konpartsakideekin 2009ko uztailaren 28an. Urtebete beranduago Joxemiel Bidador balsa estreinatu zuten



berpizte euskaltzalea, batetik, Euskararen Sustapeneko Sailaren bidez, eta bestetik, Nafarroako hegoaldean sorturiko literatuen bidez.

Gogo horrek berak eraman zuen, bizi-zako hondar hilabeteetan, Tuterako Argia ikastolaren historiaren gaineko liburua planteatzera. Bat-bateko heriotza goiztiarrak galarazi zion Euskal Herriko ikastolarik hegoaldetarrenari erakundearen iragana hobekien aztertuko zuen pertsonaren monografia hura izatea.

2001eko udaberriko txostenak bultzatu zuen Bidador azaletik arakatutako Erriberako zenbait euskalariren azterketa egitera. Urte horretan bertan, XIX. mende amaieran foruen gaiari buruzko saiakera eta artikulu ugari moldatu zituen. Esaterako, Juan Pascual Esteban Chavarria (Fustiñana, 1864-Zaragoza, 1940) abokatuari eta foruzaleari buruzko artikulua idatzi zuen (2001). Ondoren, Jose Joakin Montoro Sagasti (Iruñea, 1898-1976)



Bidador-Sara familia 2009an

abertzalearen figura eta lanak ikertzen hasi zen (2002). Eta *continuum* kronologikoa balitz bezala, bai batak bai besteak foruen eta Nafarroako identitateari buruzko euskarazko egitura zuen Erriberako diskurtsoaren argumentu-lerro ebolutiboa osatzen zuten.

2002an Tuterako Argia ikastolak Nafarroa Oinez jaia ospatu zuen. Hori zela eta, Euskaltzaindiaren kide izandako erriberatarren ekarpen intelektuala sakon aztertu zuen Bidadorrek, hain zuzen: Celestino Peralta Lapuerta (*Bonifacio de Caparrosa* ezizeneko kaputxinoa) (Kaparroso, 1879-?), Jose Maria Iribarren Rodriguez (Tutera, 1906-Iruñea, 1971) eta Marcelino Garde Villafrancarenak (Zarrakaztelu, 1925). Aurreko urteko Nafarroa Oinez jaia Lodosako Muskaria ikastolak antolatu zuen. Arrazoï horrengatik, Euskaltzaindiak jardunaldiak antolatu zituen Estellerriko Erriberako herri horretan, eta Joxemiel Bidadorrek Lodosako Eusebio Lopez inprimatzaile eta euskalariaren gainean hitz egin zuen. Bestalde, Lodosan, Xabier Lopez-Mendizabal Eusebioren iloba ezagutu zuen Bidadorrek, eta hark hainbat datu



Joxemi eta Idoia 2004an

eman zizkion euskal liburuak argitaratzearekin hain konprometituta zegoen lodosar hartaz.

Hala, bere lehen lana aberastu zuen informazioaz jabetu zen, hain zuzen: Eusebio Lopezek Mont-de-Marsaneko erbestean ikasi zuela koadernatzaile ofizioa, penintsulara egindako itzulera eta Tolosako inkardinazioa —han ezkondu zen Juliana Mendizabal Lalama inprimatzailearekin eta inprimatzaileen alabarekin—, eta etxeko inprimategiari eman zion bultzada, garai hartako euskal lanik garrantzitsuenetako batzuk argitaratuz, esaterako, Arturo Campionen *Gramática* eta Aizkibelen eta Novia de Salcedoren hiztegiak (2006).



Joxemiel Bidador herrirako eta herriaren alde lan egiteko beti prest (2008)

Literatura-sorkuntza

Lehenago adierazi dugunez, 1995ean artikuluak idazten hasi zen itxiarazi zuten *Euskaldunon Egunkariak* astero argitaratzen zuen *Nafarkaria* gehigarrian. «Klasiko bitxi arront klasiko» jarri zion izena sailari. Astez aste, euskaraz idazten zuten idazle nafarren historiari buruz zuen ezagutza eruditua azaldu zuen poliki-poliki. Orrialde haietan, Bidadorrek ahanzturatik ateratzen zituen idazleen biografiak eta lanak bildu zituen. Gainera, bere euskara berezia probatzen zuen.

Bidadorren idazkera, Alberto Barandiaranek aipatu zuen bezala, barrokoa zen,

«joskera eta sintaxi ia rokoko harekin ez ginen oso ohituak, eta beste garai batekoa iruditzen zitzaigun». Euskara zehatz eta ederra zuen, artisauaren eran landua, mimoz, hitzez hitz, Reyes Ilintxetak esan zuen bezala. Transferiezina zen Bidadorren estiloa eta ezagutza historikoz, folklorikoz eta literarioz beteta zegoen, bere jakinduria entziklopedikoarekin bat etorritz. Bidadorri eskainitako blogak anekdota bat jasotzen du. Piarres Xarritonek Bidadorren kolaborazio-lanak irakurtzen zituenean uste zuen 80 urteko kaputxino batek idazten zituela eta izugarrizko sorpresa hartu zuen Tuteran inkardinatutako gazte nafar batenak zirela jakin zuenean.



2005ean XXII. Galeusca Gironan ospatu zen. Idazle galegoak, euskaldunak eta katalanak *Tradició i dissidència* gaiaren inguruan aritu ziren

Laster saritu zuten haren literatura-sorkuntza. 1993an Iruñeko Udalak antolatutako *Egile Berrien lehiaketan* poesiako bigarren saria eman zioten, «Andrea eta desgizonaren gauzatzea» lanarengatik. Kurioso da lehiaketa honetan eman zuen izenak bere bigarren abizena ere jasotzen zuela, Gonzalez, normalean lehena bakarrik erabiltzen baitzuen. Bi urte ondoren, lehiaketa bereko lehen saria jaso zuen, Garañoko gazteluaren defendatzaileen ausardiari eskaini

zion testuarekin («Garañoko gatazkaren bart bezperan egin besta ixila») (1995). 1998an, berriz saritu zuten lehiaketa berean baina narrazio laburren sailean «Kartaberakeria» izenburuko narrazioarekin, eta 2000. urtean, beste narrazio labur batek, «Hegomina» izenekoak, akzesita jasotzeko balio izan zion.

Udalak berak argitaratu zituen testu haiek, baina, oro har, Bidadorren olerkiak, narrazio laburrak eta ipuinak ar-



Hutseaniko hazkurria eta beste poema liburuaren aurkezpena 2010eko abenduaren 22an egin zen. Patxi Larrion laguna eta Jose Angel Irigarai adiskide eta editorea bertan izan ziren Idoia eta Ilazkirekin batera

gitalpen txiki askotan aurki daitezke, prentsan, aldizkarietan eta literatura-errezitaldietako liburuxketan. Luze joko luke hemen, jorratu zituen gai guztiak aztertzeak. Idazle konsakratu bezala, Euskal Idazleen Elkarteko idazkaria izan zen (2006-2007), Fito Rodriguez, Castillo Suarez, Jerardo Elortza eta bestek osatzen zuten zuzendaritza-batzordean.

Azken urteetan, sorkuntzan edo besten literatura-lanak hausnartzen ari zen,



Joxemiel Bidador poeta

Siete poetas vascos lanerako idatzi zituen literatura-soslaiek erakusten duten bezala (2009). Hil aurretik, *Hutseaniko hazkurria eta beste* poesia lana amaituta utzi zuen. Pamiela argitaletxeak argitaratu zuen 2010eko udazkenean, Idoia Sarak eta Jose Angel Irigaraik berrikusi ondoren. Bidadorrek estilo aldaketa batekin harritzen gaitu hilondoko obra honetan. Izan ere, kezka pertsonalak, hizkuntzari buruzko gogoetak, historia, bizitza eta heriotza nahasten baititu.



Aitorpenak eta eskerrak urteetako lanarengatik

Iruñeko Euskalerria Irratiak 2007ko Larreko saria eman zion Bidadorri Barañaingo Auditoriumean ospaturiko *Entxuferik gabe*-ko festan

Gaztea bazen ere, Joxemiel Bidadorren lana eta euskarari zein euskal kulturari egin zien ekarria goiz errekonozitu zuten. Euskalerria Irratiak urtero banatzen duen Larreko saria eman zion. 37 urte zituen garai hartan eta ordura arte saria jaso zuen pertsonarik gazteena zen. Gainera, sari preziatuak Nafarroako euskarari egin zion ekarpena nabarmentzen zuen.

Hil ondoren, hainbat errekonozimendu jaso zituen. Prentsan agertutako heriotza ohar mordoxkak, www.blogari.net/joxemiel blogean jasotakoak gehienak, haren lankideek eta lagunek zioten estimuaren erakusgarri dira, eta, aldi berean, Bidadorren jakinduriaren eta izaera on-

beraren neurria adierazten dute. Azpimarratzekoak dira, Mikel Larramendiren, Jose Angel Irigarairen, Fito Rodriguezen, Pili Yoldiren, Jon Alonsoren eta Patxi Larrionen, Reyes Ilintxetaren, Iñaki Azkonaren, Alberto Barandiaranen, Gorka Bezeziartuaren, «Joxemiren lagunen», Eneka



Baternaingo hilerriaren atarian azken agurra, 2010eko martxoaren 3an



Joxemiel gogoan Patxi Uhartek *Berria* marraztutako komiki zinta.

Maizen eta Rafael Blancoren eta Joseba Bakaikoaren ekarpenak, besteak beste.

Martxoaren 5ean, Artikako kultur etxean *Adiorik ez!* omenaldi jendetsua antolatu zioten, euskal kulturarekiko konpromisoagatik eta kantitatez eta kalitatez erraldoia den obra sortzeagatik. Kike Diez de Ultzurrun, Patxi Larrion eta beste zenbait lagunek antolatu zuten, eta Pili Yoldi kazetariak zuzendu zuen. Han izan ziren haren koadrilakoak eta dibertimendu uneetan izandako lagunak, lan-kideak eta ikaskideak, kazetariak, idazleak eta historialariak. Bertsolariak eta *Duguna* eta *San Lorentzoko* dantzariak ere izan ziren. Ekitaldian irakurritako testuak www.blogari.net/joxemiel blogean jaso zituzten.

Ondoren, Baternaineko Kontzejuak Bidadorren izena eman zion parke bati,

Joxemiel bere alabekin jostatu zeneko hari, hain zuzen. Bidadorrek zuzentzen zuen erakundeak ere omenaldi txiki bat egin nahi izan zion; horretarako, Zizur Zendeako toponimiari buruzko liburua-
ren aurkezpena baliatu zuen, Bidadorrek berak egina izaki liburuaren hitzaurrea. Ekitaldia Baternainen egin zuten 2010eko azaroaren 12an, eta Patxi Larrionek, Roldan Jimenok eta Toño Irisarrik hartu zuten parte.



Txomin eta Maria lagunak Joxemiekin bizitakoa gogoan, Artikan 2010eko martxoaren 5ean eginiko omenaldian



Joxemiel Bidador gogoan 2010eko martxoaren 5ean gorazarre-ekitaldi herritar hunkigarria egin zen Artikako Maria de Maeztu kultur etxean. *Adiorik ez*

Bidadorrek maitatzen zuen beste herri batek, Tuterak, 2010eko uztailaren 28an omendu zuen. Egun hartan, herriko jaietan, Javier Perez Obanosek sortutako eta konpartsako kideek koreografiatutako «Joxemiel Bidador» erraldoi-balsa estreinatu zuten, tradizioa inauguratzeko asmoarekin, hain zuzen, musika eder hura han, Roso kalean, Joxemiren etxearen aurrean, jo dezaten eta horrela egin dadin beti. «Guk nahiko genuke 30 edo 50 urte barru, Ilazki eta Maddi jaietan direnean beren seme-alabekin, konpartsa hau dantzan ikustera etortzea, eta esan diezaietela harro, bals hau haien aitaren omenez egin

zutela, inoiz izan den pertsonarik onenetako baten gorantzan.»

2010eko irailaren 25ean, Burlatan *Aspaldikuk* elkarteak antolaturiko Nafarroako Poesiaren V. Biltzarra ospatu zen, eta han Bidador bera eta urte horretan hildako Karmele Igartua idazle gipuzkoarra omendu zituzten.

Nafarroako Liburuzainen Elkartearen *TK* aldizkariaren (2010) 22. zenbakiak ere Bidadorren argazkia zekarren azalean eta Joxemielen omenezko atal monografiko zabala bildu zuen, «Euskaraz idaztea Nafarroan» izenburupean. Bertan parte



Bidador alaiki aritu zen dantzan Baternaingo herriko plazan, 2008ko festen hasieran



2011ko martxoaren 25ean Iruñeko Planetarioan eginiko poesia errezitaldian hainbat idazlek eta kultur gilek parte hartu zuten

hartu zuten idazleak Anjel Erro, Patxi Larrion, Juan Karlos Lopez-Mugartza, Jon Alonso, Josetxo Azkona, Aingeru Epaltza, Inma Errea, Luis Garde, Josu Jimenez Maia, Alberto Ladrón Arana, Hasier Larrere, Pello Lizarralde, Laura Mintegi, Josu Penades, Felipe Rius, Ruben Ruiz, Bixente Serrano Izko eta Mikel Taberna izan ziren.

ETBko Sautrela saioak omenaldi xume bat egin zion 2011ko urtarrilaren 22an. Joxemiel Bidadorren inguruko erreporta-

je batean Patxi Huartek, Iñaki Azkonak eta Patxi Larrionek hitz egin zuten.

Azken omenaldia 2011ko martxoaren 25ean egin zitzaion. Adiskide ezberdinek, *Hutseaniko hazkurria eta beste* liburuen poesiak irakurri zituzten Iruñeko Planetarioaren hitzaldi-aretoan, oroitzapenekin eta irudiekin osatutako ekitaldi hunkigarrian.

Adiorik ez Joxemi!

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Idoia Sarari
- Patxi Larrioni
- Iñaki Azkonari
- Pamiela Argitaletxeari

BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

IRIGARAI, Jose Angel, «Joxemiel Bidador, euskaltzale handi, langile nekaezin eta dohaitsu, poeta eta adiskide», *Egan: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Boletinaren Euskarazko Gehigarria*, 1-2 (2010), 199-206.

JIMENO ARANGUREN, Roldán, «Joxemiel Bidador (1970-2010): historiador de la cultura vasca en Navarra», *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, 17 (2010), 443-460.

LARRION, Patxi eta beste batzuk (koord.): Joxemiel Bidadorri eskainitako bloga, egile ezberdinen artikuluekin: *www.blogari.net/joxemiel*

Zuzendaritza:	Jerardo Elortza
Argitaraldia:	1.a, 2012ko martxoan
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	Leitzaran Grafikak S.A. • Martin Ugalde Kultur Parkea - Andoain-Gipuzkoa
Inprimaketa:	Leitzaran Grafikak S.A. • Martin Ugalde Kultur Parkea - Andoain-Gipuzkoa
ISBN:	978-84-457-3192-5 (Lan osoarena) 978-84-457-3196-3
L.G.:	SS 284-2012

BIDAGULLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco